# Bestelako Xedapenak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-1166

ERABAKIA, 1999ko otsailaren 15ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 93/98, 94/98 eta 95/98 administrazioarekiko auzi-errekurtsoei dagokien espedientea, prozedura laburtua, Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako 1. Epaitegira bidaltzea xedatzen duena, eta balizko interesdunei aipaturiko sala horretan agertzeko dei egiten diena.

Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegiak hurrengo errekurtso hauek bidaltzeko eskatu du: 93/98, 94/98 eta 95/98 administrazioarekiko auzi-errekurtsoak (jartzaileak, hurrenez hurren, hauexek izan dira: Izaskun Unanue Mendizabal, M.ª Carmen García Guerrero eta Mikel Ordeñana Aguirre). Errekurtso horiek Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 1998ko urriaren 2ko hainbat aginduren aurka jarri ziren, zeinetan aurretiaz ipinitako errekurtso arruntak gaitzetsi egiten baitziren. Errekurtso arruntak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 1998ko maiatzaren 12ko Erabakiaren aurkakoak ziren, azken horretan aldi baterako langileen behin betiko zerrendak argitaratzen baitziren, Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta bere autonomiadun erakundeetan aldi baterako lanaldiak betetzeko 1997ko ekainaren 5eko Erabakiaren bidez dei-egindako prozesuaren ondorioz.

Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49. atalean jasotakoarekin bat (apirilaren 30eko 10/1992 Legearen idazkera) hauxe

ERABAKI DUT:

1.– Eskaturiko administrazio-espedientea Donostiako Administrazioarekiko Auzitarako 1. Epaitegira bidaltzea.

2.– Aipaturiko espedientean interesen bat izan dezaketenei dei egitea, bederatzi eguneko epean aipaturiko epaitegian auzitaratu gisa ager daitezen.

3.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 1999ko otsailaren 15a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-1166

RESOLUCIÓN de 15 de febrero de 1999, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se dispone la remisión al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Donostia-San Sebastián del expediente relativo a los recursos Contencioso-Administrativos, procedimiento abreviado, 93/98, 94/98, 95/98 y se emplaza a los posibles interesados para que puedan comparecer ante dicha Sala.

Por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián ha sido requerida la remisión del expediente administrativo relativo a los recursos Contencioso-Administrativos, procedimiento abreviado, 93/98, 94/98, 95/98 interpuestos por D.ª Izaskun Unanue Mendizabal, D.ª María Carmen García Guerrero y D. Mikel Ordeñana Aguirre respectivamente, contra diversas Ordenes del Consejero de Hacienda y Administración Pública de 2 de octubre de 1998 desestimatorias de otros tantos Recursos Ordinarios interpuestos frente a la Resolución de 12 de mayo de 1998 del Director del Instituto Vasco de Administración Pública por la que se hacen públicas las relaciones definitivas de personal destinadas a atender las prestaciones de servicios de carácter temporal en la Administración de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos resultantes del proceso convocado mediante resolución de 5 de junio de 1997.

De conformidad con lo preceptuado en el art. 49 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, redactado por la Ley 10/1992, de 30 de abril,

RESUELVO:

1.– Remitir el expediente administrativo solicitado al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo n.º 1 de Donostia-San Sebastián.

2.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer como demandados en el plazo de nueve días ante el Juzgado citado.

3.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de febrero de 1999.

El Director del Instituto Vasco de Administración Pública,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.